

Ujku, Otsoa non aipa han gerta...

Koldo Amestoy-ek idatzia eta kontatua

Bere taldetik lekutzeko iheska abiatu zelarik, urrunean ikusi zuen gizakiak, oihu bat bota zuen. Ujku ! Bera agurtzeko ala, inguruko jendeari abisu emateko ? Orain, mendebalderako bere ibilbidetik, mendialde eta oihan guneeetan gaindi doa. Leku isilak, baketsuak eta iduriz, irriskurik gabekoak zeharkatzen ditu...

Beti bere pista segituz, migratzaile iheslari hau bakarti dabil. Ujku gehienei bezala, bakarki bizitzea eta ibiltzea ez zaio batere gustatzen. Baina, nola egin bestela ? Lurralde bat librea aurkitu behar du, lehenbizi. Gero, hor topatu emearekin uztarturik, talde berria osatzeko. Orduan bai, Ujku baten egiazko bizitza eramanen duela !


Hainbat eremu zeharkaturik, ez du bera bezalakorik nehor gurutzatu, ez entzun, ez urrinik usaindu, aztarnarik ere ez du atzeman... Deusez ! Garai batean, leku hauetan bizi ziren basa-piztiak oro desagertarazi zituztela, dirudi ! Behin gogoak emanik, gizakien bizigune batera hurbiltzera ausartu da...

Herrixka batean, sarrerako etxe baten paretan, irudi bat dago : herriko armarrria. Erdian tindaturik dauka bera iduriko lauhankadun bat iluna, ahoan ihizi bat daukala. Ujku bat da ! Harrigarria ! Lehen aldiz honera agertzen dela eta, jadanik hemen bere itxura agertzen diotela ?...

Ondoko goizean, gure laguna leku berera itzuli da eta txoko batean kukutu. Bihankadun andere bat, umetxo batekin dator. Honek armarrria ikusi eta erhia luzatuz margoa erakutsi du. - Otsoa ! Ama begira, otsoa ! Nomadak ulertzen du orduan, bere sorterrian Ujku deituak, hemen Otsoa izena duela ! Beraz, Ujku izanik, Otsoa izan daiteke ? Bozkariatu da.

Biharamunean, herrian barna, itzalez itzal aitzinatzen da. Zazpi neska eta mutil elkarri zirikan eta trufari datozela, herriko plazan sartzen dira. Mutil batek bere lagunetako bat deitzen du. Otso ? Bai, zer da ? erantzuten dio mutil handi batek. - Otsozelaira joan gaitzke ? Zergatik ez ! Taldekoek onesten dute eta karrikari gora abiatzen dira. Ujku ere, hauen ondotik, kasu eginez...

Otsozelaia menditto tontorrera igan dira. Eta hortxe, larre erdian etzanik dagoen harri zabal baten inguruan guziak jarri. Kalakan ari direla, "otso" izena dute aipagai : hitzaren izenkideak, honekin moldatu deiturak, herri eta auzo izenak, kontakizunetako pertsonaiak... Hainbeste hitz berdintsu entzunik, Ujku otsoak dudarik ez du orain, duela aspaldi inguru hau dena "otsoen herria" izan zela. Eta orain, harrera-herri berdin ?



- Artzain Jokoan ari bagina ? Batek, teila puska batekin harri zabal gainean, "belardia" irudikatzeko lauki handi bat marrazten du. Honi datxikola lauki ttikiagoa, "borda" izanen dena. Lagunak inguruetan harri bila dabilta. Bi harri koskor ilun, jokoan bi otsoak izanen direnak, eta hogeit hamar harri kiskola zurixka, ardiak. Marrazkia bukaturik, otsoak borda saihetsean emanik eta ardiak belardian banaturik... Otso deitu mutikoa eta neska lagun bat, bi otsoak izanen direla. Artzaina aldiz neskatila bat izanen da, mutil laguntzaile batekin arituko dena. Eta, jokaldia has daiteke !

Zazpi gazteak harlauza inguruan jarritik daude. Bakoitzak bere gogo-begiak jokoari zuzenduak eta itzaturik. Jokolariak ez dira ohartzen, Ujku isilka hurbiltzen zaiela... Orain, hauen espalda gainetik lepoa luzaturik, Ujku otsoa kuxkuxero gisa dago, "Atzain eta otsoen arteko" gatazka hori zer ote den, ikusi eta ikasi nahian...